

# GORPUTZAREN IBILALDIA

Etzinta<sup>1</sup> gaude, lotan lurrean,  
burua goiti ta zangoak zabalik.  
Jar gaitzen elgarren ondoan,  
eskuak ttinka eta oinak bildurik.

Xutik binaka bortzekoa<sup>2</sup> eman,  
gibelka joan ta aintzina etorri.  
Edo muxu bat bere eskuan  
eskain, polliki, pitta bat<sup>3</sup> konkorturik.

**Errepika (bis) :**

**Ibiltzen naiz, lasai-lasai,  
bazterretara begira.  
Jauzikatuz orai banoa  
norbait agurtzera.**

**Errepika.**

<sup>1</sup> etzinta : etzanik

<sup>2</sup> bortzekoa : eskua

<sup>3</sup> pitta bat : pixka bat, doi bat, apur bat, amiñi bat

E - tzin-ta gau-de lo-tan lu-rra-an bu-ru-a goi-ti ta gan-go-ak za-ba-lik  
Ja - rei gai-te-zen dga-reen on-do-an es-ku-ak ttin-ka e-ta oi-nak bil-du-rik.

I - bil-tzen naiz la-sai la - sai baz-te-rra-ta be-gi-ra . Jau-zi-ka-tuz o-rai ba-no-a nor-bait a-gur-tze-ra

## HELBURUAK

AKTIBITATEAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN JAKINTASUNAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN ZEHAR JAKINTASUNAK
IRUDITU, SENDITU, SORTU. Kantua ikasi. Zuzen kantatu. Taupadak sendituz, ibili.	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Musika talde-ihardueretan parte hartu.</li> <li>◆ Botzarekin jostatu eta haren ahalak ikertu.</li> <li>◆ Bere burua espazioan eta denboran kokatu joko kantatu eta dantzatu bidez.</li> <li>◆ Soinu egite et entzute ihardueren arteko harremanari ohartu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Autonomia erakutsi espazioan, gauzei eta jendei buruz ; bere gorputza ezagutu ; jokamoldea iharduerari egokitu; gorputz trebetasuna erakutsi.</li> <li>◆ Jokamoldea talde egoerari egokitu ; parte hartu ; besteekin harremanetan jarri ; besteari behatu, bestea onartu eta errespetatu.</li> </ul>
MUNDUAN IHARDUN. Motrizitatea landu. Ibilmolde ezberdinak : aitzinka, gibelka, jauzika. Egon molde ezberdinak : jarririk, etzanik, xutik, konkorturik.	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Oinarrizko egintzen hautu zabalena erabili (ibili, jauzi egin, bultzatu, tiratu,...).</li> <li>◆ Egintzen burutzera ausartu.</li> <li>◆ Besteekin parte hartu gorputz adierazpen ihardueretan eta jokoetan, arau soil batzuen arabera, horien balioa onarturik.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Elgarrekilako bizitzaren arauak ulertu eta onartu, gogokoak ez direnak barne.</li> <li>◆ Estetikaren sendikortasuna ukan eta bere gostuak adierazi, beste obretan ere.</li> <li>◆ Oroimena erabili egoera ezagunetan oinarrituz.</li> </ul>
MINTZATZEN IKASI, IDAZMENARI OHARTU. Lexikoa landu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Hitza hartu eta molde ulergarrian bere burua adierazi.</li> <li>◆ Testu laburrak (olerkiak,...) erran eta gogoan atxiki.</li> <li>◆ Gauza, egintza eta sendimenduak izendatu eguneroko egoeretan.</li> <li>◆ Hiztegi zehatza gogoan atxiki eta doakion kontestuan erabili.</li> <li>◆ Ikasi hiztegia beste egoera batzuetan baliatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Ixtorioen, kantuen, olerkien... eta beste segiden gogoan atxikitzen trebatu.</li> <li>◆ Berdintasunak eta ezberdintasunak bereizi (itxurak/formak, koloreak, izariak, soinuak,...).</li> <li>◆ Agindu/manu bat ulertu eta bete.</li> </ul>
ELGARREKIN BIZI. Elgarren arteko mugimenduen koordinazioa landu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Elgarrekin bizitzeko arauak onartu.</li> </ul>	

## **USTIAPENA** (egin moldea)

**Haurrei proposatzen zaie kantuaren antzeztea.**

### **LEHEN KOPLA**

- Haurrak bizkar gainean etzaten dira, nahi duten tokian, zangoak zabalik.
- Gero, jartzen dira, lehen koplak dioen bezala.

### **ERREPIKA**

- Haurrak xutitzen dira.
- Lehenik lasai ibiltzen dira, bazterretara begira.
- Gero jauzika badoaz bertze baten agurtzera.

### **BIGARREN KOPLA**

- Haurrak binazka emaiten dira. Xutik.
- Elgarri bortzekoa (eskua) emaiten diote.
- Lehenik gibelka eta gero aitzinka ibiltzen dira.
- Bietarik batek, konkorturik, besteari musu emaiten dio eskuan.

### **ERREPIKA**

Lehengo errepikan bezala.

Agurtzeko, lagunaz alda daitezke.